

## Videoteca de Baketik

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as... Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en [www.baketik.org](http://www.baketik.org))

## Temática

### Franquismo, decisiones, tiempo

**Franquismo.** La película se sitúa en la época del franquismo, antes de la década de los 70. A través del protagonista, miembro de ETA, veremos la opresión de la dictadura y algunos aspectos de la violencia de motivación política que se ejercían en Euskal Herria.

**Decisiones.** Algunas decisiones son de vida o muerte. A veces las decisiones vienen sin darnos cuenta, según el impulso del momento; otras veces, son consecuencia de un proceso ético consciente.

**Tiempo.** La película no cuenta la historia de modo lineal: cuenta momentos concretos de un espacio de tiempo concreto, sugiriendo una causalidad. Además, pareciera que el tiempo se estirara en los últimos minutos de vida del protagonista. El juego del tiempo se muestra durante toda la película.

### Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película...

**...hacia adentro.** Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

**...hacia fuera.** Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

**...no solo con la cabeza,** también con el corazón. Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

...y después de algún tiempo repensar. Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

### Algunas preguntas...

#### ...antes de la película

·Sobre el franquismo. ¿Cómo era el día a día durante el franquismo? ¿Qué cosas que haces hoy en día, no hubieras podido hacerlas entonces? ¿Qué te han contado las personas que vivieron aquella época?

·Sobre las decisiones. ¿De qué forma tomas las decisiones? Emociones, consecuencias, ideología... ¿qué toma más peso? ¿Qué decisiones te han traído hasta donde estás?

·Sobre el tiempo. ¿Te sucede que a veces sientes como que el tiempo va más lento o más rápido? ¿Cuándo y por qué crees que sucede?

#### ...después de la película

·¿Cómo relacionas los recuerdos infantiles del protagonista con su situación actual? ¿Qué significado tiene el recuerdo de mojarse las sandalias? ¿Qué otras vivencias crees que ha podido tener para decidir ser miembro de ETA?

·En los últimos 100 metros, ¿crees que había alguna manera de evitar su muerte, si hubiera tomado alguna decisión distinta? ¿Qué decisión?

·¿Qué influencia ha tenido Madeleine en la evolución del protagonista? ¿Cómo es la presencia de las mujeres en la película?

·¿Cómo se toman los ciudadanos la noticia del tiroteo? ¿Qué conclusiones sobre el ambiente sociopolítico se pueden extraer de sus palabras?

## Zeurekin eta besteekin bizitzeko zinema

# Ehun metro



## Ehun metro

### Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: Ehun metro.

AÑO: 1986.

DURACIÓN: 55 min.

PAÍS: España.

DIRECCIÓN: Alfonso Ungría.

REPARTO: Ramón Agirre, Aizpea

Goenaga, Álex Angulo, Ramón Barea, Klara Badiola, Patxi Bisquert, Pilar Rodríguez, Paco Sagarzazu, Carlos Zabala, Loli Astoreka, Joseba Apaolaza, Isidoro Fernández.

PRODUCCIÓN: Eusko Jaurlaritza.

### Sinopsis

Película basada en la novela homónima (1976) de Ramón Saizarbitoria. Son las ocho de la mañana en un verano de los primeros años setenta. Ion, militante de ETA, corre desesperadamente por la parte vieja donostiarra perseguido por la policía. Durante los últimos metros que recorre en esta huida, Ion va recorriendo también la historia de su propia vida.

baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

baketik

943-25 10 05

[www.baketik.org](http://www.baketik.org)

## Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago [www.baketik.org](http://www.baketik.org) webgunean)

## Gaiak

### Frankismoa, erabakiak, denbora

**Frankismoa.** Filma frankismo garaian kokatzen da, 70. hamarkadatik atzera. Euskal Herrian diktaduraren jazarpena eta motibazio politikoko indarkeriaren aspektu batzuk ikusiko ditugu ETAkidea den protagonistaren eskutik.

**Erabakiak.** Erabaki batzuk hil ala bizikoak dira. Batzuetan oharkabean hartzen dira unean-uneke premiek bultzatuta, bestetan prozesu etiko kontziente baten emaitza dira.

**Denbora.** Pelikulak ez du modu linealean kontatzen istorioa: epe jakin bateko une zehatzak kontatzen ditu, kausalitate bat iradokiz. Horrez gain, protagonistaren bizitzako azken unean denbora luzatu egingo da. Denboraren jolasa pelikula osoan zehar ikusiko dugu.

### Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

**...barrura begira.** Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

**...kanpora begira.** Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

**...ez bakarrik arrazoiarekin,** baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

**...eta denbora baten buruan,** berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gudan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

### Hainbat galdera...

#### ...pelikula ikusi aurretik

·Adiskidetasunari buruz: ze jarrera eta ekintzek osatzen dute adiskidetasun  
·Frankismoari buruz. Nolakoa zen eguneroko bizitza frankismoan zehar? Orain egiten dituzun ze gauza ezingo zenituzkeen egin orduan? Garai hura bizi izan zuten pertsonak zer kontatu izan dizute?

·Erabakiei buruz. Zeren arabera hartzen dituzu erabakiak? Emozioek, ondorioek, ideologiak... zerk hartzen du pisua? Ze erabakiek ekarri zaituzte zauden tokira?

·Denborari buruz. Gertatzen al zaizu batzuetan denbora geldotzen edo arintzen dela sentitzea? Noiz eta zergatik gertatzen dela uste duzu?

#### ...pelikula ikusi ondoren

·Protagonistaren txikitako oroitzapenak nola lotzen dituzu orainaldiko bere egoerarekin? Zer esanahi dauka sandaliak bustitzearen oroitzapenak? ETAkide izatea erabakitzeko ze beste bizipen izan dituela uste duzu?

·Azken 100 metroetan, bere heriotza ekiditeko modurik ba al zegoen zure ustez, bestelako erabakirik hartu izan balu? Ze erabaki?

·Madeleinek ze eragin izan du protagonistaren bilakaeran? Pelikulan emakumeen presentzia nolakoa da?

·Ze jarrerarekin hartzen du jendeak tiroketaren berria? Orduko giro soziopolitikoaz zer ondoriozta daiteke jendearen hitzetatik?

Cine para **vivir y convivir**

## Ehun metro (Cien metros)



## Ehun metro

### Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Ehun metro.

URTEA: 1986.

IRAUPENA: 55 min.

HERRIALDEA: Espainia.

ZUZENDARIA: Alfonso Ungria.

AKTORE-ZERRENDA: Ramon Agirre, Aizpea Goenaga, Alex Angulo, Ramon Barea, Klara Badiola, Patxi Bisquert, Pilar Rodríguez, Paco Sagarzazu, Carlos Zabala, Loli Astoreka, Joseba Apaolaza, Isidoro Fernandez.

EKOIZPEN-ETXEA: Eusko Jaurlaritza.

### Sinopsia

Ramon Saizarbitoriaren izen bereko eleberrian (1976) oinarritutako pelikula. 70. hamarkada hasierako uda bateko goizeko 8ak dira. Ion, ETAko militantea, korrika bizian dabil Donostiako parte zaharrean zehar, polizia atzetik duela. Ihesaldi honetan egiten dituen azken metroetan, bere historia pertsonala ekarriko du gogora Ionak.

baketik

943-25 10 05

[www.baketik.org](http://www.baketik.org)

baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO